

## CRYPTOMERIA JAPONICA HOBETO EZAGUT EZAZU

\*\* Enbor zuzena, hazkunde ertaina, zuraren kalitate ona eta produktibitate interesgarria du espezie honek. **Sugi edo zedro japoniar ere esaten zaio.** Zuhaitz berdea beti, 60 metroraiko altuera izan du bere banaketa naturaleko eremuan, Japonian; eta 30 sartu den eremuetan.

\*\* Europan oraingoz **ez dago ezagutzen zaion izurrite edo gaixotasun** garrantzitsurik, baina komeni da urtean prezipitazio handia eta hezetasun erlatiboa duten eremuetan ezartzea.

\*\* EAEko **lau zuhaitzetik hiru Gipuzkoan daude.** 2016tik aurrera banda marroia nabarmen sartu zen eta mintegietan beste espezie batzuen eskasia eta birpopulaketetarako landare-eskari handia zirela eta, pinudi zaharrak aldatzeko espezie erabiliena bihurtu zen. Azken bi urteetan, Gipuzkoan egun dauden 1.606 hektareen % 70 landatu da.



BASO ELKARTEA

### Zertarako erabiltzen da?

Kalitate onargarriko zura ekoizten dute, arre-gorrixka, arina, lan egiteko erraza, korapilo txikiak, erretxina-kanalik ez, eta tamaina handiko piezak lortzeko aukera ematen dute. Trabesak eta zutoinak egiteko erabil daitezke, baita egiturazko zur gisa ere. Japonian gehien erabiltzen den zuretako bat. Eraikuntzan erabili ohi da, eta, intsektuen erasoari dion erresistentziagatik, kanpoaldean erabiltzen da. Japonian txaparako, upelgintzarako eta enbalajeetarako erabilerak ere dokumentatu dira.

## **Zein da klimaren tolerantzia?**

Urtean 1.000 mm-tik gorako euriteak behar dituzte. Ondo onartzen ditu noizbehinkako elurteak, baina denbora luzez pilatutako elur lodiarekin sufritu egiten du. Haizeari ere ondo eusten dio heldutan. Gaztaroko etapetan, aldiz, esperientziak erakutsi digu haizeak eta elurrak arazoak sor ditzaketela.

## **Zein azaleratan hazten da ondoen?**

Lurzoru azidoetan zein karetsuetan landaretza har dezake, eta arazorik gabe garatzen da mantenugai gutxiko lurzoruetan, betiere ur edafikoaren erreserba ugaria bada. Hidromorfiadun buztin-lurrak ere toleratzen ditu (putzuak maiz).

## **Non gehiago sartu dute?**

Duela 400 urtetik hona, ekoizpenerako birpopulaketetan erabili da herrialde askotan, bereziki Asian, baina baita Kanadan eta Afrikako hegoaldean ere, eta modu sakabanatuagoan Erresuma Batuko eta Frantziako lurralde ozeanikoetan.

**OHARRA:** Navarra Forestal aldizkariaren esteka honetan (2016ko ekaina) cryptomeriari buruzko txosten zabal eta zehatza aurki dezakezu (8-11 orr.)

<file:///C:/Users/user/Desktop/navarra-forestal-38.pdf>

